



HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN URTEKO PLANA

2012-2013ko IKASTURTEA

1.- SARRERA

Hezkuntza Ikuskaritzaren planak ikastetxeetan eta Administraziooko beste erakunde batzuetan egiten dituen jarduerak gauzatzeko bideak dira. Halaber, esku-hartze horiek ahalbidetzen dituen zerbitzuaren barne antolaketa azaltzen dute.

Ikuskaritzaren jarduerak lau esparrutan sailkatzen dira:

- Ebaluazioa.
- Arau-kontrola.
- Aholkularitza, orientabidea eta informazioka.
- Lankidetzak.

Ikastetxeei dagokienez, ikastetxe horien helburu nagusiari, hots, ikasle bakoitzari kalitateko hezkuntza-erantzun bat emateari eta ikasteko prozesuetan arrakasta izatea lortzeari, balioa eransteko lagungarri izan behar dute Hezkuntza Ikuskaritzaren esku-hartzeek.

Hezkuntza-administrazioari eta beste instituzio eta erabiltzaile batzuei dagokienez, Hezkuntza Ikuskaritzak egiten diren errekerimenduetan laguntza eman behar du, baita eskatzen zaizkion txostenak egin ere.

2012-2013ko ikasturterako Hezkuntza Ikuskaritzaren Plana 2011-2014ko Hirurteko Plan Nagusiaren bigarren kurtsuan dago eta, horregatik, zerbitzua emateko prozesuen maparen definizio berrian formulatutako prozesuaren bidez finkatu nahi du Ikuskaritzaren jarduera, hiru puntu hauetan konkretatzen dena: ikastetxeetan egin beharreko esku-hartzea, ebaluazioa (ikastetxeena eta pertsonena) eta eskaerei arreta ematea.

Urteko Plan hau egiteko, alderdi hauek hartu dira kontuan: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Sailburuordetza eta Zuzendaritza desberdinen eskaerak, Lurralde Arteko Koordinazio Batzordeek Zonalde Burutzeekin egiten dituen hausnarketak, ikastetxeetan egiten den esku-hartze globalaren balorazioei eta zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioari buruzkoak batez ere, Ikuskaritzaren jardueren hartzailak pozik dauden jakiteko inkestaren emaitzak eta Hezkuntza Ikuskaritzari 2011-2012ko ikasturtean egin zaizkion auditorien (barne eta kanpokoak) emaitzak. Hori guztia memorian agertzen da. Osagarri gisa, planifikatutako eta planifikatu gabeko lan-kargei eta ikastetxeak lurralde eta zonalde desberdinetako ikuskarien artean banatzeari buruzko analisia ere agertu da memorian.

2011-2012ko ikasturtearen memorian jasotako datuen artean ondorengo hauek dira esanguratsuenak eta Urteko Plan hau horiei erantzuna ematen saiatuko da:

- 2011-2012ko ikasturtean martxan jarri diren esku-hartze nagusiak finkatzea izango da 2012-2013ko ikasturtearen helburu nagusia eta, halaber, esku-hartze horiek garatzeko orduan eraginkortasuna bilatuko da, baita jarduteko irizpideak bateratzea ere.
- Plantilak aurrera eramango dituen jardueren plangintza ahalik eta egokiena egingo da, planifikatutako eta planifikatu gabeko lan-kargen artean egon beharreko oreka kontuan hartuta. Zentzu honetan, aurtengo jarduerak hasi baino lehen behar diren lan-tresna eta jarraibide guztiak edukitzeko ahalegina egin da.
- Ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako diseinatutako ardatz desberdinak garatzeko orduan, eskola-emaitzen analisia azpimarratuko da, bai irakasleek egindako ebaluazioenak, bai

ebaluazio desberdinetan lortutakoenak (diagnostiko-ebaluazioa, hautaprobak...) , baita emaitza horiek hobetzeko martxan jartzen diren curriculum- edota antolaketa-neurriak ere.

- Ikuskaritzak ikastetxeetan egiten duen esku-hartzea, zuzendaritza-taldera ez ezik, beste egitura batzuetara (OOG/Eskola Kontseilua, departamentuak, zikloak, koordinazio pedagogikorako batzordea...) ere zabalduko da eta, halaber, Ikuskaritzaren esku-hartze desberdinen hartzailak izan behar dute irakasleek.
- Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioan eskola-zuzendaritzek bost dimentsioetan egiten duten jarduera hobetzen lagunduko da, lidergoak ikasleen ikaskuntzetan duen eragin positiboa indartuz.
- Ikuskaritzak irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioan egiten duen esku-hartzea areagotuko da, praktiketako funtzionarioen eta proiektu espezifikoetara lotutako zerbitzu-eginkizunen ebaluazioan zehatzago esanda.
- Ikuskaritza-funtzioaren ebaluazioa plantila osora hedatuko da eta prestakuntza-ebaluazioak garapen profesionalean dituen ondorioak optimizatuko dira.

Ikuskarrien prestakuntza eta gaurkotzea funtsezkoa da esleituta dituzten funtzioak eraginkortasunez garatzeko. Zentzu horretan, lana orientatzeari eta jarduera inportanteenak martxan jartzeko irizpideak bateratzeari begirako ahaleginak areagotuko dira ikasturte honetan, baita jarduera horiek nola garatzen ari diren ezagutzeko prozedurak ere. Ondorioz, sartu behar diren aldaketa eta hobekuntzei buruzko begi-bistako informazioak eduki ahal izango dira.

Hezkuntza Ikuskaritzak ISO ziurtagiria, UNE-EN ISO 9001:2008 arauaren arabera, berri du 2011-2012ko ikasturtean. Barne eta kanpo auditoriak funtsezkoak dira gure zerbitzua hobetzeko orduan eta haien emaitzek begi-bistako gai batzuk eman dituzte, urteko plan honek arreta berezia emango dien jarduera esanguratsuenei zuzenean lotutako adierazleak bilatu eta garatzea esate baterako.

Azkenik, ikasturte honen lehen hiruhilekoan EAEko Hezkuntza Ikuskarrien Kidegora sartzeko lehiaketa- oposizioa egingo dela hartu behar da kontuan eta horrek, derrigorrean, ondorioak ekarriko ditu Ikuskaritzaren plantila antolatzeko orduan.

2.- KALITATEARI BURUZKO POLITIKA

Hezkuntza Ikuskaritzaren kalitateari buruzko politika, UNE-EN ISO 9001:2008 arauaren baldintza eta Lurralde Arteko Batzordeak eta Zonalde Burutzek adostua, Hezkuntza Ikuskaritzaren kalitateari buruzko eskuliburuan agertzen dena da.

3.- HELBURUAK

Urteko Plan honetan sartzen diren helburuak hauek dira:

- Ikastetxeak, zuzendaritza-funtzioa eta irakaskuntza-funtzioa ebaluatzea eta hezkuntza-sistemaren kanpo ebaluazioetan parte hartzea.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikastetxeetan eskatzen dituen programa eta proiektuen garapena kontrolatzea.
- Indarreko legeria, ikastetxeetan ikasturtearen hasierako ebazpenak zehatzago esanda, beteko den bermatzea.
- Hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta eginbeharrak, indarreko legeriaren arabera, betetzen direla bermatzea.

- Ikuskari bakoitzaren autoebaluazioaren bitartez ikuskaritza-funtzioa ebaluatzea
- Urteko Plan honek eragindako premien arabera ikuskariak prestatzea.
- Hezkuntza Ikuskaritza antolatu eta kudeatzeko eredu gaurkotzea.
- Barne komunikazioa hobetzea.
- ISO 9001:2008 ziurtagiriarekin jarraitzea, zerbitzua hobeto emateko.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barne eta kanpo hartzaileen premiei eraginkortasunez erantzuna ematea.
- Euskararen erabilpena sustatzea, hizkuntz normalkuntzari laguntzeko, eta ingeleseko hizkuntz gaitasuna areagotzea, esparru hirueleduna euskal hezkuntza-sisteman ezartzeko prozesuan era aktiboagoan parte hartzeko.

4.- 2012-2013ko IKASTURTEAN ESKU HARTZEKO OINARRIZKO ILDOAK

Zehaztutako helburuak lortu ahal izateko, ikuskaritzak ondoko esku hartzeko oinarrizko ildoak egingo ditu:

4.1. **Ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globala** azpimarratzen saiatuko da. Ikuskaritzaren jarduera, zuzendaritza-taldera ez ezik, beste egitura batzuetara ere zabalduko da. Departamentuak, zikloak, koordinazio pedagogikoko batzordea...izango dira Ikuskaritzaren esku-hartzearen hartzaileak, baita zuzenean irakasleak, tutoretza- eta irakaskuntza-funtzioan aritzean, ere. Bestalde, ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako diseinatutako ardatz desberdinen garapenean, eskola-emaitzen analisia, bai irakasleen ebaluazioarenak, bai ebaluazio desberdinetan (diagnostiko-ebaluazioa, hautaprobak...) lortutakoak, eta emaitza horiek hobetzeko martxan jartzen diren curriculum- edota antolaketa-neurriak azpimarratuko dira. Ikastetxeek, ikasleen ikaskuntza hobetzeko asmoz, martxan jarriko dituzten neurriak baloratzeko funtsezko tresna izango da Ikastetxearen Urteko Plana.

2012-2013 ikasturtean dagokion AZ zehaztuko den berariazko partehartze bat lehentasunezko ikastetxeetan jarriko da martxan.

4.2. Ikasturte honetan 2009an izendatutako zuzendarientzako azken ebaluazioak eta 2010ean izendatutakoentzako prestakuntza-ebaluazioak bat egingo dutela hartu beharko da kontuan **zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa** egiteko orduan. Zuzendaritza-taldeen bi promozio horiekin izango den esperientziak emango du ebaluazio horrek funtzio hori betetzen duten pertsonengan, baita ikastetxearen funtzionamenduaren hobekuntzan ere, izan duen eraginaren ikuspegi osoago bat edukitzeko aukera.

Aurreikuspenen arabera, ikasturte honetan agian zuzendariak aukeratzeko beste prozesu bat deituko dela hartu behar da kontuan eta Hezkuntza Ikuskaritzak prozesu horretan funtzio nabarmen bat beteko du.

4.3.- **Irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa**, zenbait profesional irakasteko gai diren zehazteko egin beharreko ebaluazioaren kalterik gabe, praktiketako funtzionarioen ebaluazioan, aldeztatik irakaskuntza-esperientziarik izan ez duten edo oso esperientzia eskasa izan duten profesionalak sartzen hasi direla kontuan hartuta, eta deialdi espezifikoetara lotutako zerbitzu-eginkizunetan ari diren pertsonengan zentratuko da.

4.4.- 2010-2011ko ikasturtean eman zitzaion EAEko **ikuskarrien ebaluazioari** hasiera, azken deialdien bidez zerbitzu-eginkizunetan sartu zen pertsonalarekin. Ebaluazio horren helburu nagusia pertsona horiek zerbitzu-eginkizunetan jarraitu behar zuten edo ez erabakitzea zen. 2012-2013ko ikasturte honetan ebaluazio hori, prestakuntza emateko helburuarekin, plantila osoari aplikatzen saiatuko da. Ikasturte honetan, lehiaketa-oposizioaren emaitza gisa, praktiketako funtzionario gisa ari diren ikuskarrien ebaluazioa ere egingo da eta, horretarako, Hezkuntza Ikuskarrien Kidegoko karrerako funtzionarioek tutoretza-lana diseinatu beharko dute.

4.5. **Ikuskaritza antolatze eta kudeatzeko eredia gaurkotzeko orduan**, aurreko ikasturteetan egindako lanarekin jarraituko da. Besteak beste, Ikuskaritza osoaren inplikazioa eta parte-hartzea, antolaketa-egitura desberdinen bidez, sustatzen jarraituko dira eta ikasturte honetan AZetako osatzaileek eta Zonalde Burutzek funtzio inportantea betetzea lortu nahi da. Halaber, aurreko Urteko Planean landu ezin izan diren alderdiak ere konkretatuko dira, Ikuskaritzaren zonaldeetan ikuskariei ikastetxeak esleitzeko irizpideak esate baterako. V92 aplikazioa ezartzen jarraituko da, Ikuskaritzaren lanak kudeatzeko.

I. ERANSKINEAN kronograma agertzen da, Ikuskaritzak ikasturtean egin dituen esku-hartze inportanteenekin. II. ERANSKINAK Ikuskaritzaren Planaren prozesuak eta azpiprozesuak aplikatzeko zehaztapenak agertzen ditu.

5.- IKUSKARITZAREN PRESTAKUNTZA

Ikuskaritzaren prestakuntza eta garapen profesionala hobetzeari ere eman nahi zaio Urteko Plan honetan garrantzia, garapen profesionalaren funtsezko zutabeetako bat baita prestakuntza. Prestakuntza hori aurrera eramateko, era desberdinak sustatuko dira:

- Planifikatutako funtzioak ikuskariei egiten laguntzeko gaitasunak eskaini nahi dituen prestakuntza da plan honi lotuta dagoena. Prestakuntza instituzionala deritzona da eta, normalean, ikasturtean ostiraletako bileratan egiten dena da. Prestakuntza instituzionala parte-hartzailea izatea proposatuko da; hots, ahal den guztietan, bileraren zati handi bat lan praktikoa egiteko erabiliko da, talde txikietan edo prestakuntzan inplikazioa sustatzen duten beste modalitate batzuen bidez.
- Prestakuntza instituzionalaren osagarri gisa, informazio- eta prestakuntza-saioak, lana bateratzeko, esku-hartzea aurrera eramateko moduari buruzko eztabaida profesionalerako eta planifikatutako tresnak erabiltzeko, Ikuskaritzaren lanaren beste zutabeetako bat dira, ematen baitute esku-hartzeetan irizpide berberen arabera jarduteko aukera. Urteko Plan honetan prestakuntza-mota horri emango zaio lehentasuna.
- Halaber, Ikuskaritzaren jarduerari edo alderdi esanguratsuenei buruzko guztien arteko hausnarketa bultzatuko da, 2011-2012ko ikasturtean martxan jarri diren mintegien ildotik. Joan den ikasturtean funtzionatu dutenen antzeko eztabaida- eta hausnarketa-fororen bat martxan jarritz konkretatuko da prestakuntza hori.
- Euskararen erabilpena sustatzeari dagokionez, IRALE programaren aukerak berriz ere erabiliko dira ikuskarien prestakuntza hobetzeko, Ikuskaritzaren lanak dituen mugen barruan. Zehatzago esanda, 2012-2013ko ikasturtean IRALEk antolatutako euskarako ikastaro bat, 5 liberazio-egunekoa, eskainiko da, joan den ikasturtean egin zen legez.
- Ingeleseko ikastaroak ere eskainiko dira ikasturte honetan.
- Izaera kolektiboko gertakari zientifiko, tekniko eta profesioaletara eta kide anitzeko gertakari eta gertakari sindikaletara joateko erraztasunak emango zaizkie ikuskariei.

Zonalde taldeen koordinazioa da garapen profesionala ahalbidetzeko beste moduetako bat eta, horregatik, oreka bat izan beharko da prestakuntza instituzionalari eskainitako denboraren eta zonalde mailako bilerekin eskainitakoaren artean. 2011-2012ko ikasturtean egin da zonalde batzuetako kasuen analisia eta hau garapen profesionalerako prozedura ona da.

IV. ERANSKINEAN 2012-2013ko ikasturterako Ikuskaritzaren Prestakuntza Plana agertzen da.

6.- URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA

Lurralde Arteko Batzordeak eta Lurralde Burutzek egingo dute Urteko Plan hau nola betetzen den egiaztatzeko jarraipena, Zonalde Burutzekin egingo dituzten koordinazio-bileretan eta Lurralde Burutzen eta haien zonalde taldeen arteko bileretan.

2012-2013ko ikasturtearen bukaeran egingo da Urteko Plan honen ebaluazioa, alderdi hauen analisia eta ondorioak kontuan hartuta:

- Lurralde Arteko Batzordeak egingo duen Urteko Planaren jarraipena, ikasturtean zehar egiten diren analisi eta balorazioetatik abiatuta, eta Ikuskaritzak egindako lanaren eta kalitatea kudeatzeko sistemaren eraginkortasunaren balorazio globala.
- Urteko planean aurreikusitako prestakuntza eta, aurreikusita ez zegoen arren, eman dena eraginkorra den neurtzea, baita indarreko urteko planean proposatutako helburuak lortzeko orduan eskuratutako emaitzak ere (III. ERANSKINA).
- Hezkuntza Ikuskaritzari egin zaizkion barne eta kanpo auditorien emaitzak.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren hartzaileak pozik dauden jakiteko neurketak, baita hartzaile horien premiak ezagutzea ere.
- Hezkuntza Ikuskaritzak eskaintzen dituen zerbitzuen hartzaileen proposamen, kexa eta erreklamazioak.
- Kalitateari buruzko politikaren egitekoa, ikuspegia eta baloreak eta kalitatea kudeatzeko sistemaren dokumentazioa egokitzeko prozesua berrikustearen emaitza.

Urteko Plan honen ebaluazioa sistema berrikusteko txostenean, Ikuskaritza Nagusiak egindakoa, agertuko da. Txosten horrek, gutxienez, atal hauek sartuko ditu:

- Kalitatea kudeatzeko sistemari, kalitate politikari eta kalitate-helburuei barne, eragin ahal dioten aldaketen proposamenak.
- Emaitzak, prozesu- eta zerbitzu-adierazleak nola lortu diren kontuan hartuta.
- Barne eta kanpo auditorien emaitzak.
- Prozesu eta zerbitzuetan izandako desadostasunak.
- Zuzentzeko eta prebentzio-jardueren egoera.
- Hartzaileak pozik dauden jakiteko egindako neurketak.
- Proposamen, kexa eta erreklamazioak.
- Oro har, hobetzeko gomendioak.
- Ikuskaritzak egindako lanaren balorazio globala.
- Lortutako ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 9a

Ikuskari nagusia



Izpta.: Alfonso Fernández Martínez

IKUSKARITZAK EGIN BEHARREKO ESKU-HARTZE GARRANTZITSUENAK AGERTZEN DITUEN KRONOGRAMA. 2012-2013ko IKASTURTEA

	2012				2013					
	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa. (4 urtetan ari izan diren zuzendariak, 2009ko uztailetik)		Prozesuaren informazioa, jarraipena eta orientazioa Bilera banakokoak edo kolektiboak	Prozesuaren jarraipena (Ebaluazioa gainditzeko zailtasunak edo arrazoiututako beste gauzak)	O P O R R A K	Zuzendaritza karguen (zuzendaria, ik. burua eta idazkaria) azken ebaluazioa Jarraipenaren azken bilera				Memoria eta proiektuen gaurkotzearen balorazioa. Zuzendariari txostenaren zirriborroa itzultzea. Ebaluazioaren azken txostena idaztea. Delegatuari bidaltzea	
Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa (4 urtetan ari izan diren zuzendariak, 2010eko uztailetik)		IUPren jarraipena Bisita Balorazio-txostena bidaltzea Bisita behar diren kasuetan			Prestakuntzarako ebaluazioa Bisita Egoera-txostena bidaltzea					
Zuzendari berriak aukeratzea									Zuzendaritzarako hautagai berriak aukeratzea	
Esku-hartze globala	Koadernoak egin eta "R"n gorde		Parte-hartzea lehentasunezko ikastetxeetan. Jarraipenerako parte-hartzea beste ikastetxeetan			Jarraipenerako parte-hartzea beste ikastetxeetan. Parte-hartzea lehentasunezko ikastetxeetan				
KGS duten ikastetxeak									Auditoria	
Ikuskaritzaren ebaluazioa						Autoebaluazioa Lana emaitzetan oinarrituta				

Oporrak Aste Santua: martxoaren 22tik, ostirala- apirilaren 8ra, astelehena, a bitartean; abenduaren 22tik urtarrilaren 6ra bitartean Gabonak



Planifikazioak prozesu edo azpioprozesu bakoitzaren jarduera garrantzitsuenak azaltzen ditu, ikastetxeak bisitatzea eskatzen dutenak normalean.

Jardueren garapen osoa AZetan agertzen da. Agiri honetan ezaugarri inportanteenak besterik ez ditugu adieraziko.

Ikastetxeak bisitatzeko orduan ondoko irizpidea izan da kontuan: lehenengo hiruhilekoan jarri diren jarduerak egin ahal izateko behar diren bisitak bigarren eta hirugarren hiruhilekoenak baino gutxiago dira. Kalkulatzeko, ikuskari bakoitzari dagozkion zuzendari edo ikastetxeen batezbestekoa hartu da kontuan, kopuru hori ikuskari bakoitzak benetan esleituta duen egiazko kopurutik urrun egon daitekeela aintzat hartu behar den arren. Lurralde burutzek, zonalde burutzekin koordinazioan, emango diete mota horretako ikastetxe gehiago duten ikuskari horiei beharrezkoa laguntza.

A.- ZUZENDARITZA-FUNTZIOAREN EBALUAZIOA

2009ko uztailaren 1ean izendatutako zuzendaritzak.

Esku-hartze honek eta 2010eko uztailaren 1ean izendatutako zuzendarien prestakuntza-ebaluazioak bateragarri izan behar dute, baita zuzendari berriak aukeratzeko prozesuak, zati batean datetan prestakuntza-ebaluazio horrekin bat etorriko denak, ere. Bisitak, taldean egin behar badira, lehenago planifikatu behar dira.

Lehen hiruhilekoa: ikuskari bakoitzaren eta ebaluazioa egin behar zaien zuzendarien arteko bilerak, ebaluazio-prozesuan orientatzeko eta izan daitezkeen zailtasunak bideratzeko asmoz. Bilerak banakakoak, zuzendari bakoitzarekin, edo kolektiboak izan daitezke. Bilera esku-hartze globalaren barruan, ikastetxera, besteak beste gai hori lantzeko, egiten den lehen bisitan, egitea gomendatzen da.

- *Bisita prestatzea:* AZren materialak eta zuzendaria ebaluatzeko prozesuan sortutako dokumentazioa irakurtzea, lurraldean edo zonaldean AZko pertsonekin egin beharreko bilerak, ebaluazio-taldearen bilerak. Kalkulua: 3 ordu zuzendari bakoitzeko banakako bilerak prestatzen badira, eta egun bat, kolektiboak prestatzen badira. Datak: irailaren 1. hamabostaldia.
- *Bisita:* prozesuaren informazioa, jarraipena eta orientazioa. Kalkulua: lanean aritzeko goiz bat, banaka egiten bada; kolektibo bada, goiz bat edo bi. Datak: irailaren 24tik urriaren 31ra bitartean. Egoeraren bat bideratu behar izanez gero, azaro eta abenduan bisita gehiago egin beharko dira.
- *Arduraduna:* erreferentziako ikuskaria. Sortutako zailtasunengatik beharrezkoa dela uste badu, ebaluazio-taldeko kideari eskatu ahal dio laguntza.

Bigarren eta hirugarren hiruhilekoa: zuzendariaren, ikasketa-buruaren eta idazkariaren azken ebaluazioa.

- *Bisita prestatzea:* materialen irakurketa, ebaluazio-taldeko kidearekin bisita prestatzea, AZko pertsonekin lurraldean edo zonaldean bilerak egitea. Kalkulua: 2 ordu zuzendari bakoitzeko. Datak: lan egiteko lehen astea, 2013ko urtarrila
- *Bisita:* azken bilera, jarraipena egiteko eta egin den aurrerapena, dimentsio eta irizpideetan, baloratzeko. Kalkulua: lan-egun bat, edo bi, zailtasunak sortzen badira. Datak: urtarrilaren 14tik martxoaren 27ra bitartean. Epe horretan bisita guztiak egin behar dira.

- *Memoriaren eta proiektu berrien balorazioa. Txostenari buruzko zirriborroa egitea, zuzendariari itzultzeko:* kalkulua: 3 ordu zuzendari bakoitzeko. Datak: apirilaren 10etik 24ra bitartean.
- *Txostenari buruzko zirriborroa zuzendariari itzultzea:* apirilaren 26a baino lehenago bidaliko zaio zuzendariari ebaluazio-txostenari buruzko zirriborroa.
- *Alegazioak aztertu eta azken ebaluazio-txostena idaztea.* Kalkulua: 2 ordu zuzendari bakoitzeko. Datak: txostena maiatzaren 15a baino lehenago bidaliko zaio lurralde ordezkariari.
- *Arduraduna:* bi ikuskarik osatutako taldea. Aurreko ikasturtearen ebaluazioa egin zuten talde berberak.

Kalkulatzeko irizpidea: gutxi gorabehera, batez beste 2,30 zuzendari ikuskari bakoitzeko. Dena den, aldagarritasun handia dago.

A.2.- 2010eko uztailaren 1ean izendatutako zuzendaritzak.

Lehen hiruhilekoa: ikastetxearen urteko planaren jarraipena egin eta txostena kasu guztietan itzultzea.

- *Bisita prestatzea:* 2011-2012ko ikasturtean, ikastetxearen urteko plana aztertu izanaren emaitza gisa, sortutako dokumentazioaren irakurketa. Kalkulua: 2 ordu plan bakoitzeko. Datak: urriaren lehen hamabostalditik (ikastetxeek urriaren 30erako idatzita izan behar dituztela ikastetxearen urteko planak eta memoriak hartu behar da kontuan).
- *Bisita:* ikastetxearen urteko planaren balorazioa, aurreko ikasturtearen txostenean hobetu beharreko elementuen artean agertzen direnak kontuan hartuta. Kalkulua: lan-egun bat baloratzen den ikastetxearen urteko plan bakoitzerako. Datak: urriaren 15etik azaroaren 30era bitartean. Epe hau luzatu ahal izango da zuzendari gehiago duten ikuskarientzat. Ezin izango da inoiz ere 2013ko urtarrilera arte luzatu, hasiera eman behar baitzaio 2009ko uztailaren 1ean izendatutako zuzendariari egin beharreko bisitari.
- *Txostena egitea:* 3 ordu ikastetxearen urteko plan bakoitzerako.
- *Txostena itzultzea:* kasu guztietan itzuliko da txostena eta, hobekuntzari buruzko balorazioa negatiboa bada, aurrez aurre egingo da. Kalkulua: azken kasu honetan, lan egiteko goiz bat. Datak: Gabonetako oporrak baino lehenago. Ez da inoiz ere 2013ko urtarrilera arte luzatuko, hasiera eman behar baitzaio 2009ko uztailaren 1ean izendatutako zuzendariari egin beharreko bisitari.
- *Arduraduna:* erreferentziako ikuskaria

Bigarren eta hirugarren hiruhilekoak: zuzendarien prestakuntza-ebaluazioa.

- *Bisita prestatzea:* materialak prestatzea, dokumentazioa irakurtzea, bisita ebaluazio-taldeko kidearekin prestatzea, AZeko pertsonekin lurraldean edo zonaldean bilerak egitea. Kalkulua: lan-egun bat zuzendari bakoitzerako. Datak: 2013ko urtarrileko 1. lan-astetik aurrera.
- *Bisita:* prestakuntza-ebaluazioa. Kalkulua: 2 lan-egun zuzendari bakoitzeko. Datak: urtarrilaren 14tik aurrera. Garrantzitsua da jarduera honek oporraldia, martxoaren 27a, baino lehenago bukatzea, gainontzeko esku-hartzeekin bat etor ez dadin.
- *ER 2001 201 egoerari buruzko txostena egitea, ebaluazio-taldeko kidearekin koordinazioan:* lan-egun bat zuzendari bakoitzeko.
- *Txostena itzultzea eta hobekuntza-lerroak konkretatzea:* laneko goiz bat zuzendari bakoitzeko, bisita behar izanez gero. Datak: apirilaren 8tik maiatzaren 30era bitartean.
- *Arduraduna:* ikuskarien taldea.

Kalkulatzeko irizpidea: Batez beste, zuzendari bat baino zerbait gehiago ikuskari bakoitzarentzat. Aldakortasun handia dago.

B.- ESKU-HARTZE GLOBALA

Lehen hiruhilekoa: esku-hartze globalaren koadernoak egin eta “R” “n” gordetzea. Ikastetxeak bisitatzea.

Lehentasunezko ikastetxeetan egin beharreko esku-hartzea egingo da lehenik. Geroago, gainontzeko ikastetxeak bisitatuko dira. Kasu honetan, ikasturtearen lehen hiruhilekoan bisita egin behar zaien praktiketako funtzionarioak dauden ikastetxeek izango dute lehentasuna.

- *Esku-hartze globalaren koadernoak:* egiten bukatuko dira 2011-2012ko ikasturtean egindako bisitekin bat datozen esku-hartze globalaren koadernoak. “R” “n” gordeko dira, AZren orientabideen arabera.
- *Bisita prestatzea:* prestakuntza, materialak prestatzea, dokumentazioa irakurtzea, AZko pertsonekin lurraldean edo zonaldean bilerak egitea. Kalkulatu den denbora: lan-egun 1 edo 2. Datak: irailean eta urriaren lehen hamabostaldian.
- *Erreferentziako ikuskariak esku-hartzean lehentasuna duten ikastetxeak bisitatzea:* ikasleek, barne eta kanpo ebaluazioetatik abiatuta (diagnostiko-ebaluazioan batez ere), izan dituzten emaitzen ardatzean zentratutako analisisia. Kalkulua: 2 bisita-egun ikastetxe bakoitzerako. Datak: urriaren bigarren hamabostalditik aurrera. Ikastetxeak ikasleen ikaskuntzari buruzko hobekuntza-helburuak IUPn sartuko ditu. Ondoren helburuen ezarpenaren jarraipena egingo da.
- *Koadernoa egitea:* laneko goiz bat ikastetxe bakoitzerako. Koadernoan ikuskariak azaldutako hobekuntza-proposamenak agertuko dira eta ikastetxeari jakinaraziko zaizkio.
- *Hobetzeko proposamenak ikastetxeari itzultzea:* egin eta berehala.
- *Arduraduna:* erreferentziako ikuskaria.

Ikastetxeen kopurua ikuskari bakoitzekok: gutxi gorabehera 1-2 ikastetxe ikuskari bakoitzeko, esku-hartzearen lehentasuna duten ikastetxeetarako.

C.- KALITATEA KUDEATZEKO SISTEMA DUTEN IKASTETXEAK

Ikasturtearen hirugarren hiruhilekoan egingo zaie kalitatea kudeatzeko sistema duten ikastetxeei auditoria. 2011-2012ko ikasturtearen auditoriaren antzera antolatuko da.

D.- IKUSKARITZAREN EBALUAZIOA.

Gabonetako operren bueltatik aurrera eta urriaren bukaerarako osatua egon beharko du. 2013ko urtarriletik aurrera hasiko da banaka egiten autoebaluazioa. Ondoren emango zaio emaitzei buruzko lanari hasiera, zerbitzu osorako ondorioak lortzeari begira.



II. ERANSKINA

2011-2012ko IKUSKARITZA-PLANAREN PROZESU ETA AZPIPROZESUAK APLIKATZEKO ZEHAZTAPENAK

PR Ebaluazioa

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaita		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesuaren taldea	Azpiprozesuaren egitea	Ikuskariek jarduteko eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
Ikastetxeen ebaluazioa										
0201 01	Kalitatea kudeatzeko sistemaren ebaluazioa (SGC - Kalitatea Hezkuntzan)	1. eta 2. hiruhilekoa	Ikastetxeari buruzko txostena		Kalitatea kudeatzeko sistema duten ikastetxeak	JA Romero	Marina Garcia M. Alonso K. Totorikagüena J. A. Fernández X. Egizabal	Erreferentziak o ikuskariak + taldea	EAE	
Pertsonen ebaluazioa										
0201 20	Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa	1. eta 2. hiruhilekoa	Banakako txostena		4 urterako izendatutak o zuzendari guztiak	A. Fernández	I. Cereceda M. Ruiz S. Ayarza M. Alonso K. Mugerza M. Bonet I. Echeverria A. Unamuno J.A. Ayucar	Erreferentziak o ikuskariak + taldea	Zonaldea	
0201 25	Ikuskaritza-funtzioaren ebaluazioa	Ikasturte osoa	Banakako txostena 2. urtearen bukaeran		Zerbitzu-eginkizunean ari diren ikuskariak (azken deialdiak)	JA Romero A. Fernández	JJ Molinuevo N. Arroita T Murguialday	Lurralde buruak, zonalde buruak, tutoreak	Lurraldea	

PR Esku-hartze globala ikastetxeetan

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaiza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu aren taldea	Azpiprozesu a egitea	Ikuskariak jarduteko eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
Esku-hartzearen ardatzak										
	Ikastetxearen Urteko Plana eta memoria	Ikastetxeetan esku-hartze globala egiteko emandako argibideen arabera gauzatuko da.				A. Fernández I. Cereceda	I. Pardo L. Barrutia P. Macho A. Oianguren	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
	Ikasleen ikasketaren emaitzak									
	Zuzendaritza-funtzioa									
	Ikasleen eskubide eta betebeharrak									
AZ lotutakoak										
0201 05	Diagnostikoaren ebaluazioa.	AZ beraren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako argibideen arabera.				A. Fernández J. Granja	R. Juan B. Díaz P. Macho JM Santiago L. Barrutia G. del Río A. Oianguren	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0201 10	Zerbitzu-eginkizunak.	AZ beraren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako argibideen arabera.				J. Granja F. Bilbatua	P. Antoñana A. Mendiola M. Bermeosolo I. Echeverria	Erreferentziak o ikuskariak + taldea	Lurraldea	
0201 13	Praktiketako funtzionarioen ebaluazioa (LEP).	AZ beraren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako argibideen arabera.				F. Bilbatua	P. Antoñana P. J. Macho M. Bonet X. Balerdi A. Laka	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 40	Udal eskolen eta 0-3 urteko Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuen kontrola eta jarraipena.	AZ beraren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako argibideen arabera.				A. Fernández	R. Saez de Cortazar J. Solabarrieta M. Miguel A. Unamuno. A. Oianguren	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 41	Haur-eskolen kontrola eta jarraipena.	AZ beraren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako argibideen arabera.				A. Fernández	R. Saez de Cortazar J. Solabarrieta M. Miguel A. Unamuno. A. Oianguren	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	

PR Esku-hartze globala ikastetxeetan

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesuaren taldea	Azpiprozesua egitea	Ikuskariek jarduteko eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
AZ lotutakoak (jarraipena)										
0202 59	Zuzendaritza-taldeak izendatzeko proposamenen kontrola.	AZ beraren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako argibideen arabera.				F. Bilbatua	Mariví García J.A. Otadui F. Martín X. Egizabal	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 52	Ikastetxeen dokumentazio eta administrazio-agirien kontrola eta azterketa.	AZ beraren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako argibideen arabera.				F Bilbatua	C. Aparicio N. Zabaleta J.A. Rey J A Fernández	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 74	Arautu gabeko prestakuntza-programen kontrola Helduen Hezkuntzako ikastegi publikoetan.	AZ beraren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako argibideen arabera.				J. Granja	R Saez de Cortazar L. Orueta X. Etxebarria P. Carnicero	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 81	Ikasleen diziplina-espedienteen kontrola.	AZ beraren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako argibideen arabera.				J. A. Romero	Jefes-as Territoriales	Erreferentziak o ikuskariak	Lurraldea	
0202 86	Ikasleen absentismoaren kontrola.	AZ beraren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako argibideen arabera.				I. Cereceda	Marina García L. Barrutia S Ayarza P. Carnicero	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 87	Ikasleen arteko larderiak eta tratu txarrek duten eraginaren kontrola eta jarraipena.	AZ beraren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako argibideen arabera.				A. Fernández	M. T. Ruiz R. Aliaga L. Isasa B Manzarbeitia JM Santiago L. Torrealdei	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	

0202 93	Maila guztietako akta akademikoen kontrola eta ikuskatzea.	AZ beraren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako argibideen arabera.	J. Granja	C. Aparicio N. Zabaleta J.A. Rey J A Fernández	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
---------	--	---	-----------	---	-----------------------------	----------	--

PR Esku-hartze globala ikastetxeetan

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesuaren taldea	Azpiprozesua egitea	Ikuskariek jarduteko eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
AZ Eskaera gisa sortu ahal den esku-hartze globalari lotutakoak										
0201 11	Irakaslea lanpostuaren perfilera nola egokitzen den ebaluatzea.	Ikasturte osoa,eskaeraren arabera	Banakako txostena	Eskaeraren arabera	Eskaera guztiak		Lurralde buruak	Erreferentziak o ikuskariak	Lurraldea	
0201 12	Irakaslea irakaskuntzarako gai den ebaluatzea.	Ikasturte osoa, eskaeraren arabera	Banakako txostena	Eskaeraren arabera	Eskaera guztiak	A. Fernández	J.I. Molinuevo I. Tazón A. Anasagasti I. Bernaola J. A. Rey A. Paniego	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 08	Etxean arreta emateko programaren kontrola eta jarraipena.	Ikasturte osoa, eskaeraren arabera	Banakako txostena	Eskaeraren arabera	Eskaera guztiak		Lurralde buruak	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 24	Eskolatzeko programa osagarrien eskaeren balorazioa.	Ikasturte osoa, eskaeraren arabera	Banakako txostena	Eskaeraren arabera	Eskaera guztiak	J. Granja	Mariví García J. Jiménez Z. Isuskiza M S de Urturi	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 53	Ikastetxe publikoetako irakasleen eta hezkuntza-pertsonalaren absentismoaren kontrola.	Ikasturte osoa	Banakako txostena Lurralde txostena	Kasuen arabera	Ikastetxe publiko guztiak	J. A. Romero	J. Pérez J. A. Sánchez M. Muñiz J. A. Ayucar D. Mazuela	Erreferentziak o ikuskariak + taldea	Zonaldea/ Lurraldea	



0202 73	Norbanakoaren curriculum-egokitzapenen (NCE) eskaeren kontrola eta jarraipena.	1. hiruilekoa	Banakako txostena	20/12	Proposamen guztiak	J Granja	C Aparicio I. Cereceda B. Diaz B Manzarbeitia D Mazuela	Ikuskarrien taldea	Lurraldea	
---------	--	---------------	-------------------	-------	--------------------	----------	---	--------------------	-----------	--

PR Esku-hartze globala ikastetxeetan

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesuaren taldea	Azpiprozesua egitea	Ikuskariek jarduteko eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
AZ Eskaera gisa sortu ahal den esku-hartze globalari lotutakoak (jarraipena)										
0202 91	Ikastetxe publikoetako pertsonalaren kontrako erasoaren kontrola eta jarraipena.	Ikasturte osoa	EAE mailako txostena	15/09	Dauden kasuak	A. Fernández	Lurralde buruak	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	

PR Eskaerei eman beharreko arreta

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesuaren taldea	Azpiprozesua egitea	Ikuskariek jarduteko eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
Hezkuntza Sailak eskatu eta Ikuskaritzak planifikatzen dituen jarduerak										
0204 01	Ikuskaritzak planifikatutako lankidetzak-jarduerak.	Jasotako eskaeraren eta zehazten diren argibideen arabera.				A. Fernández	Ikuskaritza Nagusia edo eskuordetzen duen taldea	Argibideen arabera		
Hartzaileei eman beharreko unean uneko erantzuna.										
0204 02	Hezkuntza Saileko arduradunek eskatutako txostenak.	Ikasturte osoa	Kasuari buruzko txostena, eskaeraren arabera	Hilabete epea	Eskaera guztiak	J. A. Romero	Lurralde buruak	Erreferentziak o ikuskariak edo izendatutako ikuskaria	Zonaldea	

PR Eskaerei eman beharreko arreta

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaiza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesuaren taldea	Azpiprozesua egitea	Ikuskariek jarduteko eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
Indarreko legeriak eskatutako jarduerak.										
0202 07	Hasierako Lanbide Trebakuntza programen kontrola eta jarraipena.	Iraila ekaina - uztaila	Banakako txostena	Eskaeraren arabera	Eskaera guztiak	F. Bilbatua	Mariví García J. Jiménez Z. Isuskiza M S de Urturi	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 54	Organo kolegiatuen aukeraketen kontrola eta jarraipena.	1. hiru hilabetea	EAE mailako txostena	20/12	Ikastetxe guztiak	F Bilbatua	M. Garcia R. Abasolo K. Mugertza M. Casado X. Eguizabal	Ikuskarien taldea	Lurraldea	
0202 55	Eskola-egutegiaren kontrola eta jarraipena.	2. eta 3. hiru hilabetea	Ikastetxeari buruzko txostena	30/06	Ikastetxe guztiak	J. A. Romero	J. Pérez F. Martín J.A. Otadui J. A. Ayucar	Ikuskarien taldea	Lurraldea	
0202 60	Zuzendaritzakoak ez diren karguak izendatzeko proposamenen kontrola.	1. hiru hilabetea	Ikastetxeari buruzko txostena	20/12	Ikastetxe publiko guztiak	J. A. Romero	J. Pérez J. Otadui F. Martín J. A. Ayucar D. Mazuela	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 83	Euskaratik salbuesteko kasuen kontrola.	1. hiru hilabetea	Banakako txostena	20/12	Eskaera guztiak	J Granja	R Abasolo N Zabaleta B Salve E Valencia M.M. Olabarriaga R. Bergaretxe	Ikuskarien taldea	Lurraldea	
0202 92	Pertsonalaren eta ikasleen greben kontrola.	Ikasturte osoa	EAE mailako txostena	Kasuen arabera	Eragindako ikastetxe guztiak	JA Romero	J. Pérez J. A. Sánchez Z. Isuskiza J. A. Ayucar D. Mazuela	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	

0202 95	Enplegatu publikoaren diziplina-erregimenaren aplikazioa.	Ikasturte osoa	Banakako txostena	Kasue n arabera	Ikastetxe publikoak	A. Fernández	J.I. Molinuevo I. Tazón A. Anasagasti I. Bernaola J. A. Rey A. Paniego	Prestakuntza duten ikuskariak	EAE	
---------	---	----------------	-------------------	-----------------	---------------------	--------------	---	-------------------------------	-----	--

PR Eskaerei eman beharreko arreta

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emaita		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesuaren taldea	Azpiprozesua egitea	Ikuskariek jarduteko eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						

Indarreko legeriak eskatzen dituen jarduerak (jarraipena)

Hezkuntza Sailarekin lankidetzan egiteko jarduerak (kodetu gabe)

	Atxikipenak	Zehazten diren argibideen arabera								Zonalde buruak
	Batxilergoko sari bereziak	Zehazten diren argibideen arabera								J. Fernández, L Orueta, K Mugertza, E Valencia, P Antoñana
	Hezkuntza Marko Hirueledun	Zehazten diren argibideen arabera								
	Jazarpenaren Aginduan oinarrituriko bitartekaritza	Zehazten diren argibideen arabera								Lurralde bakoitzeko ikuskari bat
	USP (Hautaprobak)	Zehazten diren argibideen arabera								
	LH sarbide probak	Zehazten diren argibideen arabera								L. Salgado
	Musika irakaskuntza ikastetxeen kontrola	Zehazten diren argibideen arabera								Erreferentzia ikuskariak
	Prestakuntza eta lanaldia alternantzia (HEZIBI)	Zehazten diren argibideen arabera								

Ikuskaritzaren barneko jarduerak

Kalitate batzordea (Kalitatea kudeatzeko sistemaren azpibatzerdea)	J. Romero, J.I. Molinuevo, M. C. Fernández, J.A. Sánchez, X. Egizabal, L. Isasa
Gogobetetzearen neurketa	J. Romero, J. Mesanza, K. Totorikagüena, L. Isasa
V92 ezarpen informatikoa	J. Romero, R. Abasolo, R. Saéz de Cortazar, J.A. Sánchez, F. Martín, M. Muñiz, J.A. Ayucar, D. Mazuela
Eskolatzeko batzordeak	Lurralde-buruak



III. ERANSKINA

(IKUSKARITZA PLANAREN HELBURU ETA ADIERAZLEAK)

Helburua	Adierazlea	Onartzeko irizpidea	Epea	Arduraduna
Ikastetxeak, zuzendaritza-funtzioa eta irakaskuntza-funtzioa ebaluatzea eta hezkuntza-sistemaren kanpo ebaluazioetan parte hartzea.	Ebaluazioak haien funtzioa hobetzeko egin dizkien ekarpenei buruzko 2009an aukeratutako zuzendarien balorazioaren batezbestekoa (0tik 10erako eskalan).	≥ 6	2013-06-30	IKUSKARITZA NAGUSIA
	2010ean aukeratutako zuzendarien artean Ikastetxearen Urteko Plana hobetu edo berori behar bezala egin duten ikastetxeen ehunekoa	% 80	2013-02-29	IKUSKARITZA NAGUSIA
	Ikastetxearen Urteko Planean ikasleen ikaskuntza hobetzeko helburuak sartzen dituzten eta helburu horiek ikasturtean zehar inplementatzen dituzten lehentasunezko esku-hartze globaleko ikastetxeen ehunekoa	% 70	2013-06-30	IKUSKARITZA NAGUSIA
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikastetxeetan eskatzen dituen programa eta proiektuen garapena kontrolatzea.	HEZIBI proiektua duten eta gertakariak izan dituzten ikastetxe guztien artean ikuskaritzaren aldatzeko edota hobetzeko proposamena jasotzen duten ehunekoa	%100	2013-04-30	IKUSKARITZA NAGUSIA



<p>Indarreko legeria, ikastetxeetan ikasturtearen hasierako ebazpenak zehatzago esanda, beteko den bermatzea.</p> <p>Hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta eginbeharrak, indarreko legeriaren arabera, betetzen direla bermatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizko Hezkuntzako ikasleen asistentzia-hutsegiteak kontrolatzeko protokolo bat egin duten ikastetxeen ehunekoa. - Elkarbizitza bermatzeko neurriak ezarri dituzten ikastetxeen ehunekoa. - Hezkuntza-etapa guztietan ebaluatzeko irizpideak aditzera eman dituzten ikastetxeen ehunekoa. <p>(Joan den ikasturtean markatutako helburua bete ez zuten ikastetxeen guztizkoaren gainean kalkulaturako ehunekoa)</p>	<p style="text-align: center;">% 100</p>	<p style="text-align: center;">2013-06-30</p>	<p style="text-align: center;">IKUSKARITZA NAGUSIA</p>
<p>Ikuskari bakoitzaren autoebaluazioaren bitartez ikuskaritza-funtzioa ebaluatzea.</p>	<p>Ebaluazioak haien funtzioa hobetzeko egin dizkien ekarpenei buruzko ikuskarien balorazioaren batezbestekoa (0tik 10erako eskalan)</p>	<p style="text-align: center;">≥ 6 hartzaileak pozik dauden neurtzeko inkestan</p>	<p style="text-align: center;">2013-07-31</p>	<p style="text-align: center;">IKUSKARITZA NAGUSIA</p>
<p>Ikuskariak prestatzea, IV. eranskinean dagoen prestakuntza-planaren arabera.</p>	<p>Ikasturtean egin diren lan-jardueretarako prestakuntza-ekintzen eraginkortasunaren balorazioaren batezbestekoa (0tik 10erako eskalan).</p>	<p style="text-align: center;">≥ 6</p>	<p style="text-align: center;">2013-07-31</p>	<p style="text-align: center;">IKUSKARITZA NAGUSIA</p>
<p>Hezkuntza Ikuskaritza antolatu eta kudeatzeko eredu gaurkotzea.</p>	<p>Aplikazioaren pilotatzea egin duen Ikuskaritzak aplikazio berria erabilgarri den baloratzea (0tik 10erako eskalan).</p>	<p style="text-align: center;">≥ 7 hartzaileak pozik dauden neurtzeko inkestan</p>	<p style="text-align: center;">2013-06-30</p>	<p style="text-align: center;">IKUSKARITZA NAGUSIA</p>
<p>ISO 9001:2008 ziurtagiriarekin jarraitzea, zerbitzua hobeto emateko.</p>	<p>Barne eta kanpo auditoria 2013an.</p>	<p style="text-align: center;">Ziurtagiriarekin jarraitzea</p>	<p style="text-align: center;">2012-07-31</p>	<p style="text-align: center;">IKUSKARITZA NAGUSIA</p>



IV. ERANSKINA PRESTAKUNTZA-PLANAREN JARDUERAK

PRESTAKUNTZA-JARDUERAREN IZENA	HELBURUAK	EGITEKO ALDIA	ORDUE N KOPURUA	PARTE-HARTZAILEAK
DIAGNOSTIKO-EBALUAZIOA ESKU-HARTZEKO GLOBALEREN TESTUINGURUAN.	Diagnostiko-ebaluazioari buruzko txosten motak ezagutzea eta Ikuskaritzaren jardura esku-hartze globalaren barruan kokatzea.	2012ko IRAILA / URRIA	5	AZKEN DEIALDIAN ZERBITZU-EGINKIZUNEAN SARTU DIREN IKUSKARIAK
ESKU-HARTZE PROFESIONALERAKO INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA EMATEA. IRIZPIDEAK BATERATZEA.	Irizpide eta jarduteko irizpideak bateratzea Urteko Planean aurreikusitako esku-hartzeetan.	2012ko URRITIK 2013ko EKAINERA	15	IKUSKARI GUZTIAK
IKUSKARITZAREN JARDUERA EDO ALDERDI ESANGURATSUENEI BURUZKO BATERAKO HAUSNARKETA.	Urteko Planean aurreikusitako esku-hartze batzuei buruz ikuskarien talde espezifikoetan edota zonaldeka eztabaidatzea.	2012ko URRITIK 2013ko EKAINERA	20	IKUSKARIEN TALDEAK
EUSKARA TXOSTENAK ERREDAKTATZEKO TEKNIKAK ETA BALIABIDEAK. IKUSKARITZAREN OHIKO IDAZKIETAN GEHIEN ERABILTZEN DEN EUSKARAZKO TERMINOLOGIA BATERATZEKO GAURKOTZEA.	Ikuskaritzaren txostenak euskaraz egiteko erabili behar diren teknikak eta hizkuntz baliabideak berrikustea. Ikuskarien prestakuntza gaurkotu eta zabaltzea, Ikuskaritzak normalean egiten dituen idazkietan terminologia egokiena erabiltzeko orduan.	2012ko OTSAILETIK MARTXORA	25 X 2	IKUSKARIEN BI TALDE
INGELESA	2012ko urtarrilean hasi zen Ingeleseko ezagutzari buruzko hasierako ikastaroari jarraipena ematea.	2012ko URRITIK 2013ko MAIATZERA	36 X 3	IKUSKARIEN BI TALDE (lurraldeko bana)
IKUSKARITZAREN LANALDIA (2012-13)	2011-2012ko ikasturtearen memoria. 2012-2013ko ikasturtearen Urteko Plana.	2012ko IRAILA	5	SAIO BAT IKUSKARI GUZTIEKIN



IKUSKARITZAREN TXOSTENAK: EZAUGARRIAK ETA TIPOLOGIA.	Ikuskaritzaren txosten motak ezagutzea.	2013ko OTSAILA	5	IKUSKARI GUZTIAK
BERDINEN ARTEKO JAZARPENA ETA BITARTEKARITZA GATAZKETAN	Berdinen arteko gatazketan mota desberdinak eta jarduteko irizpideak ezagutzea.	2013ko URTARRILETIK EKAINERA	5	IKUSKARI GUZTIAK
ARAUEN GAURKOTZEA	Dokumentazio akademiko eta administratiboari buruz prestakuntza eman eta irizpideak bateratzea. Titulazio-baldintza berriak.	2012ko URRITIK 2013ko EKAINERA	10	IKUSKARI GUZTIAK
DIZIPLINA-ESPEDIENTEAK	Ikuskari talde batekin sakontzea diziiplina-espeditenteak irekitzeko prozesuan. Beste talde batzuekin prestakuntzari hasiera ematea.	2013ko URTARRILETIK EKAINERA	10 X 2	IKUSKARIEN BI TALDE
ALDERDI JURIDIKOAK ADMINISTRAZIO-PROZEDURA: ALDERDI OROKORRAK	Ikuskariaren jardura definitzea administrazio-prozeduraren eta euskal funtzio publikoaren esparru orokorraren barruan.	2013ko URTARRILETIK EKAINERA	5	IKUSKARI GUZTIAK
V92 APLIKAZIOA EZAGUTZEA ETA ERABILTZEA	Erabakiko diren prozesuetan V92 aplikazioaren tresna informatikoak ezagutu eta erabili	2013ko URTARRILETIK EKAINERA	10	DAGOZKIEN IKUSKARIAK